

Euskal herritartasuna aldarrikatu dute milaka lagunek Durangon

Bai Euskal Herriari ekimenak 'Ni naiz, gu gara. Autodeterminazioa, lurraldetasuna, naziotasuna' loloan deituriko manifestazioan EHNaren aldeko oihuak izan ziren nagusi, atzo

AITZIBER LASKIBAR - DURANGO

Milaka lagun bildu ziren atzo Durangoko kaleetan, Bai Euskal Herriari ekimenak *Ni naiz, gu gara. Autodeterminazioa, lurraldetasuna, naziotasuna* loloan eginiko deialdiari jarraituz. Euskal herritartasuna aldarrikatu, eta, horretarako baliabide gisa, Euskal Herriko Naziotasun Aitorpena (EHNA) erabiltzeko deia luzatu zuten antolatzaileek.

17:30etarako egina zegoen deialdia eta orduan hasi zen protestaldia, aurrean Ertzaintzaren lau furgoneta zeudela. EHNaren aldeko oihuak izan ziren sarrienak, bai eta Udalbiltzaren, Euskal Herriaren zein autodeterminazioaren aldekoak ere.

Adar hotsak eta txalaparta doinuek iragarri zuten manifestazioaren helmuga, Santa Ana Plazan. Bertsolariek gaia mahai-gaineratu eta Bai Euskal Herriari ekimeneko bi kide hartu zuten hitza, jarraian, «zenbat aldiz atera behar dugu kalera Euskal Herriaren eskubideak aldarrikatzera?» galdegin ez eta, «Euskal Herriari Espainiako eta Frantziako estatuetatik jasaten duten zapalkuntzaren» adibidetzat Udalbiltza eta bertako kideen espetxe-erantzak jarri. Hala, aipamen berezia izan zuten Loren Arkotxa kartzelan dagoen Udalbiltzako lehendakariarentzat.

Josexo Ibazeta Euskal Herriko hautetsien ordezkariak hartu zuten ondoren hitza, ekimenare-



MANIFESTAZIO jendetsua egin zuten atzo, Durangon, euskal naziotasuna aldarrikatzeko. MARISOL RAMIREZ / ARGAZKI PRESS

kin bat egin eta manifestaziorako hautatutako leloaren egokitasuna azaltzeko.

«Autodeterminazioa Euskal Herriari bizi duen gatazka gainditzeko beharrezkoa da», esan zuen lehenik. Hau da, «Euskal Herriari bere etorkizuna erabiltzeko eskubidea» duela. «Bestetik, autodeterminazio eskubidea gauzatzeko subjektu politikoa Euskal Herri osoa da; herri osoak du bere buruaren etorkizunaz

erabiltzeko eskubidea», esan zuen. «Horixe adierazten du lurraldetasunak, Euskal Herriari Atturitik Ebroraino doan lurrak osatzen duela», eta, beraz, etorkizuna erabakitzea ez dagokiela bertako herrialde batzuei soilik «ez EAEri ez beste inori, Euskal Herri osoari baizik».

Naziotasunari buruz, honako esan zuen: «Frantzia eta Espainia etengabe ari dira haien identitatea guri inposatu nahian

baina naziotasuna ezin da indarrez inposatu».

Horren guztiaren aurrean, EHNaren erabilera aldarrikatu zuten, «nazio eraikuntza demokratikoaren bidean tresna eraginkorra delako» eta «inori baimenik eskatu gabe, naziotasunaren aldeko urratsa delako». Beraz, datorren astebururako antolatutako EHNaren tramitazioarako egunetan parte hartzeko deia luzatu zuten.

HAUTESKUNDEAK

«Ekimen indartsu bat» abiatzeko aukera dagoela uste du EAE-ANVk

ERREDAKZIOA - GASTEIZ

Datorren urtean izango diren Espainiako hauteskundeetara begira, abertzaleen arteko elkarlana sustatzeko gogoia iragarri du EAE-ANV alderdiak. Batasunak duela gutxi dei egin du badaleskunde horiek baliatzeko «Espainiari ezetz esateko». EAE-ANVren aburuz, badago «ekimen indartsu bat» abiatzeko aukera, «non Hego Euskal Herriari aukera izango lukeen Espainiako Erresumaren inposaketari ezetz esateko».

Prentsa agiri batean nabarmendu duenez, alderdia «bat dator ezker abertzaleko bozeramaileek azken aldia azaldukoarekin». EAE-ANVk uste du badela garaia erantzun «bateratua» emateko, «euskal kutsua duen edozein gauzaren aurka Espainia burutzen ari den erasoari aurre egiteko».

Duela lau urte abstentziarako deia egin zuen ezker abertzaleak. Autokritika egin du EAE-ANVk jarrera horri buruz: «Gure boto-emaldeen artean abstentziaren aldeko jarrera ez zen nahi bezain ondo ulertu. Ondorioz, herritar batzuek bozka baliagarria uste zutena aukeratu zuten, ezker abertzalearen ekimena ahulduz».

Jarrera alderdikoiak baztertzeko deia

Prozedura abiatu aurretik, alderdi bakoitzak «protagonismoak baztertu», eta abertzaleen arteko elkarlana burutzeko prest dagoen argitu beharko du, agiriak zehazten duenez.

Ildo horretan, oharazpena igorri die EAJ, Aralar eta EARI EAE-ANVk, zuzenean ez aipatu arren. «Oso larritzat joko genuke zenbait eragile politikok hauteskunde hauek erabili nahi izatea ezker abertzalearen zenbait talderen legez kanporatzearen lepotik euren bozka kopurua gizenitzeko, jarrera alderdikoi batekin».

Proposatutako elkarlana bateratuak, alderdi abertzalearen irudiko, alderdi guztiei ahalginak eskatzen dizkie, baina «herriak galdegin duena» dela azpimarratu du EAE-ANVk.

ERREGIO HAUTESKUNDEAK

Ipar Euskal Herriko sozialistak baztertu dituzte biarnesek

PSren Hitzarmen Nazionalak larunbatean hartuko du azken erabakia

ENEKO BIDEGAIN - BAIONA

PS alderdiko Ipar Euskal Herriko arduradun nagusiak baztertu dituzte biarnesek, datorren martxoeko erregio hauteskundeetarako. Pirineo Atlantikoetako militanteek bi zerrendan artean hautatu behar zuten. Kontseilu federalak aurkeztu zerrendan, Ipar Euskal Herriko aurpegi eza-gunak nahiko atzean gelditzen ziren. Adibidez, Frantxoa Maitia bozeramaile eta orain arteko es-

kualde kontseilaria, zazpigarren postuan ezarri zuten eta postu horretan nahiko zaila du eskualde kontseilari kargua berriz lortzea; kontuan hartuz, gainera, Berdeekin eta PCFrekin zerrenda batu bat osatzen badute, aulki gutxiago geldituko zaiela. Colette Capdevielle Baionako eskualde kontseilaria ez zen zerrendan agertzen. Gisa horretan, Baiona eskualdetik ez litzateke hautetsi sozialistarik izanen Akitaniako kontseiluan. Alta, eskualde hiri-

da Akitania osoko bigarren hirigune garrantzitsua.

Frantxoa Maitiak, beste kide batzuekin batera, zerrenda alternatibo bat osatu zuen, «lurraldeen arteko oreka gehiago errespetatuz». Zerrenda horrek Ipar Euskal Herriko militanteen bozen arteko %60 lortu zituen, baina departamendu osoko %40 bakarrik.

Akitaniako batzordeak bilera bat izanen du aste honetan. Azken hitza alderdiaren Hitzarmen

Nazionalak izanen du, heldu den larunbatean, egitura horrek baititu PSren zerrendak erabakitzen. Pentsa liteke departamenduko militanteen hautua berretsiko duela. Frantxoa Maitiak uste du, ordea, Biarnoa eta Ipar Euskal Herriaren artean agertu den «desberdintasuna kontuan hartuko» dutela eta hirugarren zerrenda bat proposatuko, «oreka bat» eskainiz.

Maitiak ez zuen komentariarik egin nahi izan egoera horren zergatien inguruan. Prozedura bururatzearren beha dagoela azaldu zuen. Ez zuen zehaztu ea bazterketa horren arrazoia Ipar Euskal Herriko militante sozialistek euskal departamenduaren aldeko jarrera hartzean oinarritzen den, edo alderdiaren barneko beste eztabaida batzuen ondorioa den.